

BALIO PROPOSAMENA

Geoproducten helburua pertsoneri bizitza erraztea da. Gure zerbitzua gai da beren eguneroko bizitzari baliagarri zaien informazioa biltzea eta horrela denbora eta diru pixka bat aurreratuz. Gure aplikazioa gabe, ziurenik familia gehienek ez lukete erosteko aukera hobereana aukeratuko daukaten denbora libre murriztatik edota denda txiki askoren eskaintzak ez ezagutzeagatik.. Gainera, mugikortasun murriztua edo mugikortasun-arazoak dituzten pertsonak ere erabil dezakete gure aplikazioa; izan ere, supermerkatuak non dauden eta haiengana nola iritsi ikus lezakete. Gainera, beste webgune edo erakunde batzuen laguntzarekin, hala nola "Hiri Lagunkoiak", gure bezeroek zonaldeko denda txikietara joateko biderik egokiena, laburrena edota egokituena zein den ezagutu dezakete, bertara ailegatzeko dauden garraio zerbitzuez gain.



Momentu honetan ez dago produktu jakin batzuen bilaketa erraztu dezakeen beste aplikaziorik elikagaien sektorean. Laguntzeaz gain, pertsona behartsuenei deskontuak ere eskaintzen dizkiegu, produktu merkeagoak edo eskaintzak dituztenak eros ditzaten. Gure enpresaren sustapenik nabarmenena hilean behin ematen den deskontua da. Hori lortzeko, aurretiaz, 10 aldiz baino gehiago erabili behar izan duzu aplikazioa, 100 euro baino gehiagoko erosketa eginez, eta horrela deskontu-kode bat lortuko duzu aplikazioan erabili ahal izateko. Beherapen horiek

aldatu egiten dira hilabetearen arabera, eta % 50eko deskontutik, 3x1eko deskontura arte izan daitezke.

Gure lehiakideekiko ezaugarri edo desberdintasun nagusia supermerkatuetako hainbat katetako produktuak azkar alderatzen ditugula da, hau da, gure aplikazioa momentuan bertan supermerkatu ezberdinetan produktuek daukaten prezio eta eskaintza emateko gai da. Gainera, salgai dauden produktuen prezioa, deskontuak eta jatorriak ikusteko azkartasuna eta laguntza behar zenuela ez zenekien onura da.

Eslogan: ¿QUIERES TOMATE O QUIERES CHOCOLATE? DA IGUAL PORQUE NUESTRA APLICACIÓN DE COMPARACIONES ES ALUCINANTE!

Eslogan: EZ DAKIZU NON DAGOEN PRODUKTUAREN PREZIORIK ONENA? LASAI EGON! GEURE KONPARAKETA ENPRESAK EGITEN DIZU DEN-DENA.